

## 2005eko AURREKONTUEN FORU ARAUA - XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehena. Abenduaren 24ko 8/1998 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, aldatzea.

Ondoko xedapenak aldatu dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauan.

**Bat.** 63. artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«63. artikulua. Murrizpena batera tributatzeagatik.

Foru arau honen 90. artikuluan xedatutakoari jarraiki batera tributatzea aukeratzen denean, oinarri ezargarri orokorrak 3.672,00 euroko murrizpena izango du urtean aitorpen bakoitzeko.

Foru arau honek 91. artikulua 2 apartatua aipatzen dituen familia unitateen kasuan, aurreko paragrafoan adierazitako murrizpena 3.223,00 eurokoa izango da».

**Bi.** 68. artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«68. artikulua. Zergaren eskala.

1. oinarri likidagarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:

<i>Oinarri likidagarri orokorra, gehienez/ Euroak</i>	<i>Kuota osoa Euroak</i>	<i>Oinarri likidagarriaren gainerakoa, gehienez Euroak</i>	<i>Tasa aplikagarria %</i>
3.672	0,00	3.060	15,00
6.732	459,00	7.140	23,00
13.872	2.101,20	13.668	28,00
27.540	5.928,24	14.280	35,00
41.820	10.926,24	19.380	42,00
61.200	19.065,84	hortik aurrera	48,00

2. Batez besteko karga tasa orokorra honako hau izango da: Aurreko apartatua xedatutakoa aplikatu ondoren egokitzen den kuota oinarri likidagarri orokorrarekin zatitzeak ematen duen zatidura ehunekin biderkatuz ateratzen den kopurua. Batez besteko karga tasa bi zenbaki hamartarrekin adieraziko da.

3. Zergadunaren batez besteko karga tasa orokorra Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorra baino handiagoa denean, kuota osoari kopuru hau murriztuko zaio, alegia, aipatutako batez besteko tasaren eta Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorraren arteko diferentzia jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboa osatzen duten ondare irabazien zenbatekoari aplikatuz ateratzen den emaitza.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioetarako, ondare irabazien zenbatekotik jardueraren etekin garbia zehazteko kontuan hartutako ondare galerak gutxituko dira, hala badagokio».

**Hiru.** 71. artikulua 1 apartatua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«71. artikulua. Kenkaria ondorengo ahaideengatik.

1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzagatik honako kenkaria egingo da:

a) 469 euro urtean, lehenengoagatik.

b) 576 euro urtean, bigarrenagatik.

c) 867 euro urtean, hirugarrenagatik.

d) 1.122 euro urtean, laugarrenagatik.

e) 1.530 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzagatik.

Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzagatik, aurreko paragrafoaren arabera dagokionaz gain, 255 euroko kenkari osagarria egingo da urtean».

**Lau.** 71.bis artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«71. bis artikulua. Kenkaria haurrak adoptatzeagatik.

1. Indarrean dagoen legeriari jarraiki adoptatzen den pertsona bakoitzagatik 612 euroko kenkaria egingo da.

Nazioarteko adopzioen esparruan bitartekari edo laguntzaile gisa jarduteko lege izaera aitortua duten entitate, organismo edo agentziei emandako kopuruen kasuan, aurreko paragrafoan ezarritako muga entitate horiei ordaindutako kopuruen 100eko 20koa izango da, beti ere ordainketa horiek aurrez justifikatzen badira.

Kenkari hau adopzioaren ebazpen judiziala ematen den zergaldian aplikatuko da.

2. Adopzioa bi ezkontideek edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko bi kideek egiten dutenean, kenkaria zati berdinetan hainbanatuko da».

**Bost.** 72. artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«72. artikulua. Kenkaria seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik.

Epailen erabakiz seme-alaben urteko mantenua ordaintzen duten zergadunek kontzeptu horregatik ordaindutako kopuruen 100eko 15 kendu ahal izango dute aitorpenean, honako muga hauekin:

a) 134 euro urtean, lehen seme-alabagatik.

b) 166 euro urtean, bigarrenagatik.

c) 198 euro urtean, hirugarrenagatik.

d) 256 euro urtean, laugarrenagatik.

e) 348 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzagatik».

**Sei.** 73. artikulua 1 apartatua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«73. artikulua. Kenkaria aurreko ahaideengatik.

1. Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorren bizi den aurreko ahaide bakoitzarengatik 206 euroko kenkaria egin ahal izango da.

Kenkari hau aplikatzearen ondorioetarako, ondoko kasu hau ere aurreko paragrafoan deskribatutako elkarbizitzarekin parekatuko da: Aurreko ahaidea urte natural osoan egoitza zentro batean bizitzea modu jarraitu eta iraunkorren, eta egonaldiaren gastuak ondorengo ahaideak bere ondaretik ordaintzea».

**Zazpi.** 74. artikulua 1 apartatua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«74. artikulua. Kenkaria ezindua izateagatik.

1. Pertsona ezindua den zergadun bakoitzagatik, aurreko artikuluetan esandakoari jarraiki egin beharreko kenkariez gainera, jarraian zehazten den kenkaria ere aplikatuko da erregelamenduz ezartzen den minusbaliotasun mailaren eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntzaren arabera:

<i>Minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza</i>	<i>Kenkaria (euroak)</i>
%33koa edo minusbaliotasun handiagoa eta %65etik beherakoa	612
%65ekoa edo minusbaliotasun handiagoa	938
%75ekoa edo minusbaliotasun handiagoa, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuta	1.122
%75ekoa edo minusbaliotasun handiagoa, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuta	1.428

Aurreko paragrafoan aipatutako minusbaliotasun maila eta puntuak abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotako moduan neurtuko dira.

Kenkari hori bera aplikatuko da, halaber, ondorengo edo aurreko ahaide bakoitzagatik, ezkontidearengatik, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-lagunagatik, edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaide bakoitzagatik, hau barne, euren adina edozein dela ere, baldin eta zergadunaren menpe egonik eta beren urteko errentak, salbuetsitakoak barne, zergaldian lanbidearteko gutxieneko soldata bi halakoak baino handiagoak ez izanik, pertsona ezinduek badira. Kenkari hau bateragarria izango da aurreko artikuluetan esandakoaren arabera egin litezkeen beste kenkariekin.

Era berean, kenkari hau aplikatu ahal izango da baldin eta pertsona ezindua zergadunari lotuta badago tutoretza arazoak direla medio edo etxean diru trukerik gabe hartua izateagatik, eta aurreko

paragrafoan adierazitako errenta maila betetzen bada. Tutoretza edo etxean hartze hori adin gabekoak babesteko gaietan eskudun den Entitate Publikoarekin beharko da formalizatu».

**Zortzi.** 74.bis artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«74. bis artikulua. Kenkaria adinagatik.

65 urtetik gorako zergadun bakoitzagatik 204,00 euroko kenkaria egingo da.

Zergadunak 75 urte baino gehiago baditu, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 408,00 eurokoa izango da».

### **Bigarrena. Abenduaren 27ko 14/1991 Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergarena, aldatzea.**

Ondoko xedapenak aldatu dira Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Arauan:

**Bat.** 28. artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«28. artikulua. Oinarri likidagarria.

1.Obligazio pertsonalaren kasuan, oinarri ezargarria 191.440 euro murriztuko da, minimo salbuetsi gisa.

2.Zerga ordaintzeko obligazio erreala duten subjektu pasiboak ez zaie aplikatuko aurreko apartatua aipatutako minimo salbuetsia».

**Bi.** 30. artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«30. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren oinarri likidagarriari ondoko eskalako karga tasak aplikatuko zaizkio:

Oinarri likidagarria, gehienez (Euroak)	<i>Kuota osoa (Euroak)</i>	<i>Oinarri likidagarriaren gainerakoa, gehienez (Euroak)</i>	<i>Tasa aplikagarria (%)</i>
0	0	181.290	0,20
181.290	362,58	181.290	0,30
362.580	906,45	362.580	0,50
725.160	2.719,35	725.159	0,90
1.450.319	9.245,78	1.450.318	1,30
2.900.637	28.099,92	2.900.635	1,70
5.801.272	77.410,71	5.801.270	2,10
11.602.542	199.237,38	Hortik aurrera	2,50

**Hiru.** 36. artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«36. artikulua. Aitorpena aurkeztera behartuta dauden pertsonak.

Honako hauek daude aitorpena aurkeztera behartuta:

a)Obligazio pertsonalagatik zergari lotuta dauden subjektu pasiboak, beti ere euren oinarri ezargarria, zergaren araei jarraituz zehaztua, 191.440 eurotik gorakoa denean edota, zirkunstantzia hori bete ez arren, euren ondasun eta eskubideen balioa, zergaren araei jarraituz zehaztua, 663.780 eurotik gorakoa denean.

b)Obligazio errealagatik Zergari lotuta dauden subjektu pasiboak, euren ondare garbiaren balioa edozein dela ere».